

2026/2027 ikasturterako matrikulazio-kanpaina

Jakinarazten da otsailaren 2tik 13ra (biak barne) izango dela 2026-2027 ikasturterako 2 eta 16 urte bitarteko ikasle berriak aurrematrikulatzeko epea. Matrikula eskaera egiteko hitzordua hartu beharko da [galdetegi hau](#) betez.

Bestalde, **urtarrilaren 24ean**, larunbata, **10:00etan** eta **11:30ean**, **ATE IREKIAK** izenez ezagutzen den saioa izango dugu. Agerialde eraikin parean (Alperroburu, 5. zk.) elkartuko gara. Bertan, ikastolako funtzionamendua azalduko dugu eta ikastolan zehar ibiliko gara eraikuntza ikusiz (haurrekin etor zaitezke). **Bertaratzeko interesa duenak, urtarrilaren 22a baino lehen, izena eman beharko du [galdetegi hau](#) betez. Anima zaitezte!**



Kafe tertulia

Altxa burua Usurbil taldeak, kafe tertulia antolatu du Potxoenean urtarrilaren 21ean, arratsaldeko 18:00etan. [Horma-irudian](#) zeren inguruan hitz egingo den ikusi dezakezue.

 altxa burua

MANGA tailerra

Urtarrilaren 23an, ostirala, 17:30ean, Sutegi Liburutegian, MANGA TAILERRA II eskainiko da LH4tik gorako gazteentzat. Izen ematea, Liburutegian bertan. Hemen [horma-irudia](#)



HAUR HEZKUNTZA

Material-kobrantza

Gaur, urtarrilak 16, hileko erreziboarekin batera, HHko ikasleei 2025/26 ikasturteko eskola-materiala kobratuko zaie. Materialaren kostua, **40 €** izango da.



Zorriak

HH 3ko ikasle batzuegan zorriak sumatu ditugu.

Norberak bere seme/alabarekin egoera horretan ohikoak diren higiene neurriak hartzea eskatu nahi dizuegu.

NEURRI HAUEK ERAGINKORRAGOAK IZAN DAITEZEN SAIATU DENOK ASTEBURU HONETAN EGITEN TRATAMENDUA



LEHEN HEZKUNTZA

Irteeren kobrantza

➤ LH6. maila

Azaroan Zumaiako Flysch-etara eginiko irteeraren kostua, **9,50 €**, datorren astelehenean, urtarrilak 19, kobratuko da.

➤ LH5. maila

LH5. mailako ikasleek Aiako Harriak-era egindako irteeraren 2. zatiaren kobrantza **astelehenean**, urtarrilak 19, egingo da. Zenbatekoa **26,15 €** da.



Irteerak

Datorren **ostiralean**, urtarrilak 23, **LH 3**ko ikasleak Txuri Urdin izotz-jauregira egingo dute irteera, izotz gaineko irristaketa lantzeraz.

Eraman beharreko materiala:

- Eskularruak
- Izotz pistan ibiltzeko arropa egokia.
- Aldatzeko arropa

Ikasleek, beti bezala, 9etarako etorri beharko dute gelara eta 12:30erako bueltan izango dira.



BIGARREN HEZKUNTZA

Ez dago berrik.